

LIBURUTEGIKO ARAUDIA

Eskaintza

- Irakurtzeko aukera (bertako liburuak edota norberak dakarrena).
- Etxerako lanak egiteko aukera.
- Lan bat egin behar izanez gero kontsultatzeko aukera.
- Azterketak...prestatzeko ikas gunea.
- Ordenagailuak erabiltzeko aukera.
- Internet-a erabiltzeko aukera.

Arauk

1. Liburutegia astearte eta ostegunero irekiko da.
2. Orduategia: eguerdiko 15:20etatik 16:20 bitarte.
3. Ordu horietan liburutegia erabili ahal izateko aldez aurretik izen-abizenak idatzi beharko dira horretarako jolas-garaian kortxean jarriko den orrian.
4. Zerrendan agertzen ez diren ikasleek ezin izango dute liburutegia erabili ordu horietan.
5. Zerrenda horren berri liburutegiko arduradunak, jangelako arduradunak eta jangelako begiraleek izango dute.
6. Ordu horietan ikasgelak itxita egoten direnez, bakoitzak behar dituen lan tresnak aldez aurretik hartuko ditu, hau da, goizeko klaseak amaitutakoan.
7. Liburutegia erabili behar duten ikasleek ezin izango dute gora eta behera ibili, beraz, saio osoa eman beharko dute bertan.
8. Liburutegian isiltasuna gorde behar da, begirunea zor dugulako.
9. Liburutegian erabiltzen den materiala (liburuak, entziklopediak...) bere lekura itzuli behar dira, dagoen ordena zainduz.
10. Aulkiak jasota utzi behar dira.
11. Ordenagailuak erabiliz gero, itzalita utzi behar dira.
12. Arau hauez gain, ikastetxean ohikoak diren eskubide eta betebeharrak daudela jakin.
13. Ikasturte honetan ez da liburu mailegurik eskainiko.